

“New Yorkeko apendizitis batengatik, porrot eginda egongo nintzatekeen”



Duela 5 urte, gure bezeroa oporretara joan zen, astebetetz, New Yorkera, eta **gure aholkuei jarraituz, Bidaia Asistentzia aseguru bat kontratatu zuen.** Tamalez, apendizitisa izan zuen, eta premiaz ingresatu behar izan zuten, ebakuntza egiteko. Faktura 30.000 dolarrekoa izan zen.

Hara: turista alemaniarren %90 **bidaia-aseguru** batekin irteten dira euren herrialdetik. Espainian, 3 kasutik batek bakarrik egiten du hori. Eta UNESPAren arabera, intzidentzia gehienak gaixotasunagatik izaten dira (%40).

Esan nora zoazen, eta “broma” zenbat kostako zaizun esango dizut

Ameriketako Estatu Batuetara edo Brasilerara bazoaz, hobe duzu aseguratuta egon. Falklandetan, 2.300 eurokoa da ezbehar baten batez besteko kostua eta, Zimbabwen, 7.370 eurokoa.

Gurutzaontzi batean osasun laguntza behar eta asegururik ez baduzu, presta zaitetz! Errezeta bat eskatzea bakarrik 100 euro kosta daiteke.

Espainian, Gizarte Segurantzak egiten dizu kasu, eta Europar Batasunean, **Euro-pako Osasun Txartelak** babesten zaitu.

Osasun gastuez gain, zer estal dezake Bidaia Asistentziak?

Joan-etorri luze edo labur batekin zerikusia duen guztia: **ezeztatzea eta etetea, ekipaje-arazoak, atzerapenak, istripuak eta erantzukizun zibila** (besteri eragin diezaiok ezun edozein kalte).

“Ezin duzue imajinatu zein esker onekoa naizen zuen aholkuengatik; horri esker, Bidaia Asistentzia aseguru bat kontrata nezan konbentzitu ninduzuen. Duela urte asko neukan planifikatuta nire emaztearekin bidaia handi bat egitea. Eta errealitate bihurtzeko unea iritsi zen. New Yorkera iritsi eta bi egunera, gaixotu egin nintzen, apendizitisak jota, eta ingresatu egin behar izan ninduten, ebakuntza egiteko. Ez genuen bidaiatz gozatu eta etxera ere ezin nintzen itzuli. Baina gure aseguruari esker, ebakuntzaren eta ingresatuta egon behar izan nuen egunen kostuari aurre egin ahal izan genion, eta, gainera, nire emazteak nirekin egon ahal izan zuen denbora guztian. Sendatu ondoren, elkarrekin itzuli ginen etxera. Zuen aholku profesionali eta kudeaketa azkarrari esker, ezusteko horrek ez gintuen porrot egitera eraman; nola egin aurre 30.000 dolarreko ordainketa bati? Eta bakarrik egon banintz? Zuen lanarekin horrelaxe jarraitzea animatzen zaituztet.”
 (Migel F.)

Badakizu zure seme-alaba 24 orduan dagoela aseguratuta?

Jaiki, gosaldurik, hortzak garbitu eta autobuzetik eskolara joaten da zure seme-alaba. **Bidean istripu bat** balu, garraio-aseguruak babestuko luke.

Ikasgelan sartu eta jolasaldira irteten da. **Patioan erori eta min hartzen du** Beste aseguru baten babesa dauka (ikastetxeko Erantzukizun Zibileko aseguruarena).

Hara... Bazkaltzeko ordua da. Dirudienez, **barazkiak ez daude oso egoera onean.** Lasai, catering enpresaren polizak ordainduko ditu ondorioak.

Ikasi du nahikoa. Kirola egin beharra dago. Zure seme-alaba udal igerilekura doa, eta **aseguratuta dago hori ere**, hirugarrenen kalteetarako Erantzun Zibileko aseguru eduki behar baitu, erabiltzailearen batek istripurik edukiz gero erantzuteko.

Ondore, jolastera joan zarete, parkera. Beste haur batek urratu txiki bat dauka, **zabu bat ongi ez egoteagatik.** Parkea udalaren jabetzakoa da, eta aseguratuta dago hori ere.

Hobe pilotan jokatzeko. Zuri ere gauza bera gertatu zitzaizun bere adinean: **baloiarekin jo zenuen litxarrerria dendako kristala.** Nork ordainduko du? Zure Etxe Aseguruaren Erantzukizun Zibilak.

Hobe halakorik ez gertatzea, baina zori txarra edukiz gero, egon lasai, ezusteko guztiak ongi estalita egon baitaitezke.

Aseguru-industriak babesten du gure ongizatea.



Stop hipoteka lotetsien errepresioari!



Amaitu da! Hemendik aurrera, bankura joaten zarenean eta ez zaituzte tintaz betetako boligrafo batekin seinalatuko hipoteka baten truke etxeko aseguru, autoarena, bizi aseguru eta abar sinatzeko. Hipoteka Lege berriak (sei hileko honetan sartuko da indarrean) debekatu egingo du zure maileguarekin polizak kontratatzea behar zaitzaten.

Produktu finantzarioen salmenta lotetsia deitzen zaio horri, eta Europako Batasunaren agindu bat da. Esan nahi du bankuak hainbat aukera eskaini behar dituela, seguruekin edo segururik gabe, bezeroak askatasun osoz erabaki dezan poliza bere kontura kontratatu edo ez.

Lege proiektuak debekatu egiten du aukerak aztertzeagatik gastuak kobratzea; aseguru-artekariok ez dugu sekula halakorik egin, ezta egingo ere.

Are gehiago: legegileak ohartarazi du ezingo direla maileguen baldintzak kaskartu, ezta bezeroak bankuak eskaintzen dizkion polizak onartzen ez baditu ere.

700 euro gehiago ari ziren ordaintzen hipoteka

Orain arte, 700 euro garestiago ziren hipotekak urtean, produktu lotetsi bat onartzen ez bazenuen. Finantza-erakundeek produktuak eta zerbitzuak kontratatzea behartzen zuten mailegua emateko: aseguruak, nomina eta ordainagiriak helbideratzea, kreditu txartelak... Ez onartuz gero, urtean puntu bat baino gehiago kostatzen zitekeen zure dirua.

“Aseguru-artekariak finantza-erakundeekin alderatuta erakutsi duten profesionaltasunaren jakitun da kontsumitzailea. Independentek dira, ez daude konpainia baten mende, eta hipotekadunaren onura zuzena bakarrik bilatzen dute; finantza-erakundeek, aldiz, ez dute hori erakutsi orain arte; aseguruaren inguruko ezjakintasun handia ere badute, bestalde.”

Azkenik, **gehiegizko klausulen zerrenda beltza** sortzea ere aurreikusuten du lege berriak, epaileek gehiegizkotzat jotzen dituzten puntu guztiak bilduko dituenak. Klausula horiek kentzea behar dezake notarioak bankua.

Anekdotak

“Indarra lagun izan dezazula”

Film guztiak eduki beharko lukete aseguru on bat, ezustekoei aurre egiteko, *Guerra de las Galaxias: Episodio VIII Los últimos Jedi* filmean gertatu bezala. Hegazkinean zihoozen bitartean, **bihotzekoa izan zuen Leia printzesak (Carrie Fisherrek), eta heriotza eragin zion**. Arazo ikaragarria sortu zuen horrek, sagaia horretako protagonistetako bat zen aktorea ordezkatzeko. Horregatik, Hollywoodeko industrian ohikoa da **aktoreen heriotza edo desagertzea estaliko duten aseguruak kontratzea**.

El despertar de la fuerza filmean, **hanka hautsi zuen Han Solok (Harrison Ford)** bere hitzetan *txatarra pila bat* besterik ez zen **Halcón Milenarioaren metalezko ate bat gainera erorita**. Salaketa jarri zioten produktoreari, eta 1,7 milioi dolar ordaindu behar izan zituen arduragabekeriagatik.

“Izarren” aseguruak

Baliaezintasuna edo heriotza estaltzen duen **istripu** aseguru da ohikoenetako bat aktoreen artean. Istripu batek euren jarduera profesionala etetera behartzen dituen ordaintzen dizkie kalte-ordainak. Hara! **Ez da aktorea izan beharrik ezbehar kasuan ongi babestuta egoteko**.



Gomendio

“Haizetakoa izoztuta daukat. Zer egingo dut?”

Ezta okurritu ere ur beroa botatzea edo berogailua topera jartzea. Bat-bateko tenperatura aldaketa handi horrek beira hautsi dezake.

Plastikozko arraspa bat erabiltzea edo izotza kentzeko beirara alkohola botatzea da gure aholkua.

Haizetakoa ongi edukitzeaz arduratu, eta 6 edo 12 hilabeteetan behin aldatu. Ongi ez badaude, arrastoa uzten dute. Erabili haizetakoa garbitzeko likidoa, deposituko ura ez izozteko.

Kontuan izan beirako kolpe bat zirrikitu bihur daitekeela, eta zirrikitu hori handitu egin daitekeela tenperatura aldaketarekin.

